



EHUNGINTZA OSAGARRIAK – Bikaintasun maila

Prozedura irekiaren bidez eta lehiaketagatiko esleipen bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

1. Kontratuaren xedea eta espezifikazioak

1.1. Kontratuaren xedea

1. Koadroa

Kontratu honen xedea da jantziak gizarte- eta ingurumen-irizpideen arabera erostea [zehaztu jantzi-mota: zapiak, poltsak, etab.]

1.2. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapen teknikoak eta zehaztapen baloragarriak

2. Koadroa

Erositako produktuek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Bidezko Merkataritzari eta Garapenari buruzko Europako Parlamentuaren Ebazpeneko parametroak betez ekoitzia izatea (A6-0207/2006).
- Produktuaren zuntzen % 90, gutxienez, naturala izatea, estandar hauen arabera: Europako Batasuneko 2092/91 araudia (EE) 2008ko abenduaren 31 arte, eta 834/2007 araudia (EE) 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera; AEBko Nekazaritza Saila-USDARENak (*National Organic Program*-en arabera) edo nazioarteko IFOAM erakundearena edo horren baliokideena; eta/edo ekoizpen-hondarretatik, ehungintzatik, jantzigintzako ebakinetatik eta kontsumitu ondorengo ehun-hondakinetatik eratorriak diren zuntz birziklatuak erabiltzea.
- Produktuek substantzia kimikoei buruzko irizpideak betetzea fabrikazioan eta behin betiko produktuan, estandar hauen arabera: Oeko-Tex¹, Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoa², Beltxarga Zuria³, Made in Green⁴ edo antzekoak.

¹ https://www.oeko-tex.com/en/business/certifications_and_services/ots_100/ots_100_start.xhtml

² Ehungintza produktuak. 2009ko ekaina.

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2009:197:0070:0086:ES:PDF>

- Halaber, garraiorako enbalajearen kartoizko kaxak erabili behar dira, kaxa bakoitzaren % 80 material birziklatuz egin behar da, eta banakako enbalajerik ez da erabili behar.

2. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintza-aurkezpena

Eskaintzen eta aurkeztutako agirien ebaluazioa errazteko, agiriak aurkezteko modu jakin bat eskatu behar da baldintza-agirian. Informazio hori lehiaketa-deialdian zehaztu behar da, eskaintzaileek garaiz izan dezaten.

3. Koadroa

Eskaintzaileak agiri hauek aurkeztu behar ditu, honela:

1. **Ingurumen-eskakizunen egiaztapen-zerrenda**⁵ behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Horrekin batera, nahitaezko irizpideak eta irizpide baloragarriak (eskaintzaileak hartutako konpromisoak) bermatzen dituzten **egiaztagiri guztiak** aurkeztu behar dira.

Baldintza-agirian ezarritako estandarrak eta bestelako egiaztagiri batzuk baliokideak direla frogatzea eskaintzaileari dagokio; horretarako, baliokidetza hori erakusten duten azterlan teknikoak aurkeztu beharko ditu.

³ Textils, skins and leather. Version 3.3 March 2004.

<http://www.ecolabel.dk/kriteriedokumenter/039e.pdf>

⁴ http://www.madeingreen.com/en/mig/mig_home/mig_home.xhtml

⁵ Kapitulu honetako «Hornitzaileentzako checklista» dokumentua ikusi.

Eskuragarri: <http://www.ihobe.eus/> > Jarduera eremuak > Erosketa Publiko Berdea